



Zine Maratoia

“Children Of Fire” (1990) 50'

Mai Masri zinegilea, Israelen kontrako boikot kulturalaren bultzatzaileetako bat da. Bere jatorriko herrira, Nablus-era itzultzea erabaki zueneko irudiak biltzen ditu dokumental honek. (Gaztelania - Jatorrizko bertsioa, gaztelaniaz subtitulatua)

La cineasta Mai Masri es una de las impulsoras del boicot cultural a Israel. Este documental recoge las imágenes e impresiones del regreso de la directora a su ciudad natal: Nablus. (Castellano - Versión original con subtítulos castellano).

Children Of Fire

Mai Masri



“Domicilio privado” (2004) 90'

Zuzendaria testigu izan zen benetako egoera batean oinarriturik dago filmea. Israelgo ejertzitoak familia palestinar baten etxea okupatzen du base gisara. Familiak baina, etxean jarraitzea erabakitzen du, eguneroko bizitza erresistentzia borroka bilakatuz. (Gaztelaniara itzulua)

Este film esta basado en hechos reales de los que el propio director fue testigo. El ejercito Israelí ocupa la casa de una familia palestina como base militar, pero la familia decide seguir en su hogar convirtiendo el día a día en una lucha de resistencia. (Doblada al castellano).

“Jenin, Jenin” (2002) 54'

Mohammed Bakri aktore eta zinegile palestinar ezagunak zuzenduriko dokumental hau, debekatu egin zuten agente Israeldarrek. Irudietan, 2002an okupazio ejertzitoak Jenin-go errefuxiatu kanpamenduan egindako sarraskiaren testigantzak biltzen dira, Israeldarren errepresio bortitzaren erakusgarri. (Jatorrizko bertsioa, gaztelaniaz subtitulatua)

Este film dirigido por el conocido actor y realizador palestino Mohammed Bakri, fue prohibido por las autoridades israelíes. En la película, se recogen los testimonios de la matanza realizada en 2002 en el campamento de refugiados de Jenin por el ejercito de ocupación, como ejemplo clarificador de la represión Israelí. (Versión original con subtítulos en castellano).

